

Partikula subatomikoak Fukushimako erregaia bilatzeko

MARTXOAREN 11N lau urte beteko dira Fukushimako zentral nuklearra lehertu zenetik. Ikerlariak bat datoz historiako istripu nuklearrik kutsagarriena izan dela, baina ez dira ados jartzen izango dituen ondorioez. Orain arteko ondorioak ebaluatzea, berriz, zaila da, erradiazioak ez diolako momentuz isurtzeari utzi, nola airean hala uretan.


Fukushimaren kudeaketaz arduratzen den TEPCO enpresak zentrala desmuntatzeko 40 urtetik gora beharko zituela esan zuen; horrek nahiko garbi adierazten du gaurko belaunaldia ez dela gai izango arazoari aurre egiteko. Lerro hauetan inoiz aipatu izan dugu zentrala saiakera zientifikorako gune bilakatuko dela, horrek duen ondorio txar eta on guztiekin. Egia esan, beste irtenbiderik ez zegoen.

Testuinguru horretan kokatu behar da zentrolean egindako azken saiakera. Fukushimako hiru errektoreren guneak desegin zirela jakina da, baina ez erregaiaren kokapena. Hura ateratzeko edozein ekintza egin aurretik non dagoen jakin behar da, eta horretarako muoi izeneko partikula subatomikoen arrastoa bilatu nahi dute.



TEPCO

Fukushimako langileak muoi detektagailua prestatzen.



Minuturo eta metro koadroko 10.000 muoi zeharkatzen dute Lurra.

Minuturo eta metro koadroko 10.000 muoi zeharkatzen dute Lurra, eta substantzia gutxi batzuekin topo egitean baino ez dira harrapatuta geratzen; uranioarekin eta plutonioarekin, esaterako. Erreaktoarek zeharkatzen dituen muoien presentzia atzemateko detektagailuak jarri dituzte, eta horren bidez erregai puskak egon litezkeen lekuen mapa osatu nahi dute. Teknologia hori sumendi batzuen barne irudia lortzeko erabili izan da, konparazio baterako.

Oraingoz proba bat baino ez dute egingo. Japoniako Gobernuak, badaezpada, alde aurretik ohartarazi du neurketaren emaitza ez dela perfektua izango. Erregai lagin txikiak ez dira detektatuko, eta beste horrenbeste gertatuko da sakonera handienetan daudenekin. ■

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera


web garapenak


multimedia


aholkularitza


edukiak


iametza
 interaktiboa
www.iametza.com
 T.943 37 67 16

Frackinga hainbat lurrikararen eragilea izan zela baieztatu dute

AEBetako Ohio estatuan, Mahoning konderrian, fracking bidez erazten dute gasa. 2014ko martxoan bost lurrikara gertatu ziren, 2,1 eta 3 bitarteko magnitudekoak; ikerketa batek erakutsi berri du frackinga izan zela eragilea. Teknika horren bidez egindako lanek ordura arte ezezaguna zen faila bat aktibatu zuten.

ttiki.com/336908
(Gaztelaniaz)

Apple, Titanen atzetik

Ez gara ari Saturnoko sateliteaz, Applek izan dezakeen proiektu super-sekretu batez baizik. Antza denez, konpainiak 1.000 pertsonatik gora –gehienak ingeniariak– kontratatu ditu, automobilgintza elektrikoan lehen urratsak egiteko.

ttiki.com/336909
(Frantsesez)

Zarak ez omen du ekoitziko angorazko jantzi gehiagorik

Angorako artilea Txinan hazitako untxiangandik lortu izan du Zarak, baina badirudi enpresak hornitze bide horri uko egingo diola aurrerantzean, animaliei eragindako tratu txarren aurkako taldeen eraginez. Orain hurrengo urratsa baino ez da falta, hots, Asiako langileekiko ere sentiberatasun berdina agertzea.

ttiki.com/336910
(Frantsesez)